

Behinola,\*

ardizain egozen nebarreba bik  
suge bat ikusi eben ziri-zara\*joiala bidean behera.  
Haren atzetik joanda, leza\*baten sartu zan mutila.  
Lezea iluna zan, baina barrenean argia egoan.

— Zer ete dök argitasun hori? —esanda,  
barrurago sartu zan.  
Barruko aldetik abots sendo batez  
— Nor hau? —itandu eutsan norbaitek.  
Mutila, mutu.  
— Ikusi dok inoiz honelako ikatzik egosten\*? —esan  
eutsan, barriro berba eginaz lehengoak.  
Eta mutilak, ezer esan barik, hartu ikatz apur bat eskuetan  
eta kanpora urten eban, argitan hobeto ikusteko.  
— Ene, ikatz hau... ez döna ikatza —esan eutsan  
kanpoan egoan arrebeari —urregorria baino!  
— Urregorria? —erantzun eutsan besteak —Eskatu egiok gehiago!  
Eta gehiago eskatzen joan zan barriro barrura.  
— Hartu, hartu égik gura aina,\*—esan eutsan lehengoak—  
baina kontuz gero! Isilik ibili... Hor barruan lo dagoan  
Basajauntzar hori  
itzartuten bädok... akabau\*egingo hau-eta!



## basajauntzar



Kontuz ebilen gure mutila kolkoa urregorri beteten,  
baina urduri\*ebilelako-edo...

DRAK! zaratea egin eban eta Basajauntzar itzartu egin zan.

— Zer izan dök hori? —itandu eutsan honek bere lagunari.

— Ba...ba... —besteak.

Mutilak orduan, alde egin guran, arineketeari emon eutsan.

Basajauntzar-ek ikusi... eta atzetik jarraitu eutsan.

Bizkor joian mutila... bestea barriz bizkorrago!

— Ja, ja, ja! —egiten eban barre Basajauntzar-ek.  
Halako baten, harrapatu zorian\*eukala...

— DAN! DIN-DAN! DAN! —eleizako kanpaiak hasi ziran.

Eta DRA! zirkin\*egin ezinik gelditu zan Basajauntzar.

Mutila, ostera, bizkor joian aurrera. Eta Basajauntzar-ek  
hori ikusirik maldizino hau bota eutsan.

— Hir<sup>zur</sup> etxelean ez dök ezbeharrik\*faltako!

Eta dinoenez, halantxe jazo zan:  
mutilaren etxelean hiru anaia hil ziran.

Ipuinak ipuin dira. Antxina  
ezbeharren bat jazoten zanean  
hanelako kontuak etorten jakezan harei burutara  
eta sinistu ere sinistu egiten ebezan.

\* behinola = en cierta ocasión  
\* ziri-zara joan = deslizarse suavemente

\* leza = leze, leize, koba  
\* ikatz egosi = ikatz egin

\* ...aina = tanto como...  
\* itzartu = iratzartu, akordau

\* "akabau" = hil, zehetu  
\* urduri = artega, nervioso

\* ...zorian = a punto de  
\* zirkin egin = mobido

\* ezbeharra = zoritzarra, zorigaitza